

Noaua!!



Inoiz baino gehiago bildu da Sahararen aldeko kanpainan



Xabi, Erramun eta Miren

Usurbilgo
mihiluzeak



*Tasarrufak eraginduta
jarduaraz jarraitzen.*

Santutenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobiila: 670 02 77 31

**AIALDE
BERRI**

SAGARDOTEGIA



Ikastolen Elkartea

**EUSKAL ETA INGELES
UDALEKUETARAKO**

**BEGIRALEAK
BEHAR DIRA**

**IZEN EMATEA:
MARTXOAREN 16a BAINO LEHEN!**

IKASTOLEN ELKARTEA
AIZ PLAZA, 1-4
48015 BILBO

Tel. 94 4354340
www.biekastola.net

N U Kultur Elk rt k
zk n tz r N us

G -z rr n

1.-2 k m m r t
l ntz k n mk .

2.-2 7k t sm k
t urr k ntuk.

3.-Zuz n rtz
tz r r n s k t
t n r n .

.-G l r / r ntzun k.

E un
M rtx k 17, l run t .

r u
L h n n l , 1 15 n.
rr n l , 1 3 n.

T k
N U Kultur Elk rt r n tz n
(r rr 3, h)

lk rt n u .c m • r rr 3, E uz k tz l .2 17 USU IL

Noaia!!

Badok Amairu !!

Eli Goikoetxea: "Little Miss Sunshine filma ikustea gomendatuko nuke"

Izen abizenak: Eli Goikoetxea.
Adina: 23 urte. **Helbidea:** Kaleberri.
Ogibidea: Hezitzailea.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.
Gurasoak, mutil laguna eta amona.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
Familia, mutil laguna eta lagunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.
Akaso egunen batean egingo dut.

9. LIBURU BAT.
"El caballero de la armadura oxidada".

10. FILM BAT.
"Little Miss Sunshine".



11. LEKU BAT.
Usurbil.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.
San Esteban.

13. URTARO BAT.
Udara.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bortaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaia.com - www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manizidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

MATRIKULAZIO KANPAINA UDARREGIN **5. OR.**

USURBILGO GAZTEAK, MIHILUZEN **6. OR.**

SAHARAREN ALDEKO KANPAINA **8. OR.**

MANIFESTAZIOA DONOSTIAN **11. OR.**

ASTELEHENEAN, ODOL-EMATEA **13. OR.**

UDARREGIKOAK, ARETTEN ESKIATZEN **14. OR.**

ESKUBALOI PARTIDA ERABAKIORRA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Txotx

Bordatzoko terrazako aterpe azpian topatu ditut. Bat handia, zabala, baserritarrez jantzia, blusa beltza, txapela, abarkak...; bestea txikia, eskasa, marradun kami-setaz eta galtza bakeroaz. Txirrita eta Zakilixut. Lehena Irigoieneko eraikuntza lanetaz aspertua eta bestea asteleheneko Berriako tiran ez azaltzeak ematen dion atsedena hartuta. Txotx garaia iritsi da eta Usurbilgo sagardoa probatu aurretik kontu kontari daude. Bata bertsoan eta bestea prosan baina eztena ahoan dutela inongo zalantzarik gabe.

Bitartean errotondatik etengabeko autobus desfilea, orain "bazzanesa" ondoren "garcia" "alegria" eta baita "veloz sanguinea" ere. Denak Saizar edota bestelako sagardotegietarako bidea egiten.

Zakilixutek, gaur egun autobuskadetan etortzen direla sagardoa edatera, Txirritari azaldu dion arren, zaharra ez da batere harritu. Berak ere antzeko gauzak ikusita dagoela aitortu dio. Usurbilen bertan ba omen zela sagardotegi bat, Berraiartzabarrena, bertara Donostiatik tren bereziak etortzen zirela, orduan trenbidea gertu geratzen zela eta sagardoaz gain Agiñako angulerak angula saltzera ere

joaten zirela han ziren bezeroak aprobetxatzera.

Bestalde Txikierdin bazela Donosti-bilbo errepede ondoan Itxaskuen sagardotegia ere, milaka litro ekoiztu eta gainera bolatokia ere bazuela, jokoa sagardoarekin lotua nonbait. Eta lehendik ere kostaldeko bide zaharrak eta Tolosakoak bat egiten zuten lekuan Txikierdin, ostatuan bazirela kotxera, zaldia eta dilijentziak gordetzeko eta noski toleara ere. Beraz gaur egun autobuskadak etortzeak noski ez duela Txirrita harritu.

Zakilixutek zein sagardotegira joan behar duten galdetu duenean Txirritak inongo zalantzarik gabe Maskolaitzera erantzun dio, agian ez sagardo hobena baina bai giro apartena topatuko dutela. Han biltzen dira inguruko golforik handienak. Egun bat, bi, eta hiru ere pasa daitezke bertatik atera gabe, aspertzeko betarik ez dago; oilo ehizak, bertsoak, trikitiak, eta "... sagardo errekek ahotik sartu eta ahal den lekutik aterako zaizkik."

Kalezarko bidea hartuta abitu dira bi lagunak, aurrena Ugarten mokautxo bat eta trago bat hartuko dutela alda-pa ondo hasteko, ondoren Usurbilgo sagasti politik ikusi eta Maskolaitzera ordu beten iritsiko direla aginduz.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubema - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ilka-mika !

Martxoaren 3an, usurbildarrak Donostiara

Duela hilabete t'ardi Usurbilgo kaleak bete genituen moduan, datorren larunbatean martxoak 3, Donostiako kaleak jendez gainezka jarri behar ditugu, guztiok batera, beste behin ere, errausketari ezetz esateko. Lerro hauek baliatu nahi ditugu, beraz, Usurbil Bizirik izenean Errausketaren Aurkako Gipuzkoako Plataformen Koordinakundeak deitutako manifestazioan izan zaitezten. Arratsaldeko 17:00etan da hitzordua, Anoetako estadioaren aurrean. Donostiako kale nagusiak zeharkatu eta udaletxe aurrean amaituko da, "Errausketarik Ez, Alternatibak Badaudelako" leloarekin zabalduko den manifestazioa. Hainbat herritako plataformak (Txingudi, Errenteria, Oiartzun, Landarbaso, Donostia, Astigarraga, Ereñozu, Arnasa, Billabona, Donostia, Zubieta, Andoain...) bertan izango dira beren pankarta eta herriarrek, tartean Usurbil Bizirik taldekoak eta usurbildarro deia luzatzen dizuegu hitzordu honetan izan zaitezten, asko baitugu jokoa, guztiok.

Hainbat partidu politikok (Batasuna, Ezker Batua, Aralar, Zutik), sindikatuk (ELA, CC.OO, LAB, STEE-EILAS) eta mota askotako giza mugimenduk nahiz gizabanakoek bere adostasuna agertu dute eta bertan izango dira beste milaka herritarrekin batera.

Lerrootatik dei berezia egin nahi diogu gure alkate omen denari, gurekin batera, errausketaren aurka dagoela adierazi eta Donostiako kaleetan izan dadin. Zubietako errauste-plantaren aurka dagoela esanez hedabideetan sarri agertu den horri, Donostiara lagun gaitzala eskatzen diogu, Usurbil inguruan horrelako eraikuntza kutsagarriak ez duela nahi esan dezala. Esan dezala ere, bere etxe ondoan ez, baina besteen etxe ondoan eraiki nahi duela, eta bera eta bere alderdia horretan sutsu ari direla. Lotsatuko al zarete! Ba al da hori baino jarrera zitalagorik?

Hauteskundeetarako hiru hilabete eskas falta direla, gure agintariak omen direnak, EA eta PNV, zitzu bizian, edozein moduz

egin nahi dute aurrera, beren negozioak arriskuan egon ez daitezten, funtsean badakitelako errauste-planta atzera egitea dela, egun errauste-plantak, nahiz eta teknologia aurreratuenak izan eta salbuespen gutxi batzuk ezik, inon ez direla eraikitzen jakin. Beste modu batera esanda, iraganeko kontua dela ondo baino hobeto badakitelako. Europako Parlamentuak halaxe ulertu du berriki, zuzenean ez debekatu arren, etorkizunean errausketa galarazteko bidea hasi du. Aurka egoteko hau guztia nahikoa bada ere, zaborren arazo latzari aurre egiteko alternatibak daudela erakutsi izan zaie behin eta berriro, nahiz eta beren erantzuna beti bera izan: berearekin temati jarraitu, arazoari adarretatik ez heldu eta milaka gipuzkoarri jaramonik ez egin. Gainera, hori dena gutxi balitz, denon osasuna arriskuan jarri nahi dute. Egoera hauxe izanik errausketa geratu egingo dugulako, martxoaren 3an usurbildarrok Donostian egon behar dugu.

Usurbil Bizirik

Martxoaren 9an amaituko da Udarregi ikastolan matrikulatzeko epea

Udarregi ikastolan matrikulatzeko epea pasa den astelehenean zabaldu zen. 2007/2008 ikasturtean bere haurra ikastolan matrikulatu nahi duen gurasoak, martxoaren 9ra arteko epea izango du. 2-16 urte arteko irakaskuntza arautua eskaintzen du Udarregik.

Euskara eta Euskal Herriko kultura sustatzeaz gain, balore eta jarrerren lan-ketek osatzen dituzte ikastolako heziketaren ardatz nagusiak. Gainera, besteak beste, jangela eta auzo guztietarako garraio zerbitzuak, orientazio departamendua eta heziketa behar bereziak dituztenentzako laguntza-gela ditu.



Santixabelak prestatzeko lehen bilera, datorren astean

Uztaila urruti dagoela dirudien arren, Santixabel jaiek denon arreta merezi dute. Jai nagusiak antolatzeke lehenengo bilera laster datorren astean egingo da, martxoak 6 asteartea, arratseko 19:30ean. Aurrekoetan bezala, honakoan ere udaletxeko areto nagusian egingo da jaietako bilera.

Gazte Ekimena, bere aldetik, jada hasia da biltzen. Iaz, Artzabalgo parkeko gunea girotzeaz arduratu ziren Gazte Ekimeneko kideak.



Ilka-mika !

Usurbilgo herriari

Usurbilgo Haur Eskola, herri hone-tako hezkuntza proiektua den aldetik, gurasoekin eta udalarekin bilera burutu ostean, Usurbilgo herriari bertan egun bizi den egoeraren berri emango da:

2007ko otsailaren 8an, arratsaldeko 7etan Haur Eskolan gurasoei zuzenduta zegoen bileran, langileek hartutako erabaki baten berri eman zen.

Erabaki hori ulertzeko, 6 urte haue-tako ibilbidea agertu zen. Haur Eskola honek duen biziarekin batera, nortasuna garatzen eta finkatzen joan da, bertako ezaugarri bereizgarrienak azpimarratu zirelarik.

Hala ere, bada 6 urte hauetan eritmo berdinean garatu ez den alderdi bat, LANGILEGOAREN LAN BALDINTZAK alegia. Proiektu hau aurrera atera ahal izateko langileek esfortzu handia egin dute urte hauetan zehar baina jada eta lan baldintzak aldatu ezean, ez dela bideragarria

azaldu zen.

Haur Eskola honetako langileek egoera hau ikusirik Partzuergoaren aldeko apostua egin zuten, proposamen honen alde positibo eta negatiboak azalduz. Bukaeran, eta bilera honen helburuari jarraiki, hartutako erabakia azaldu zen: Partzuergo denez egun mahai gainean dagoen aukera bakarra, irailerako Partzuergoan sartzeko bermea lortu ezean haur eskola utzi egingo dutela.

Erabaki honekin eta gurasoak hirugarren zutabea izanik, udaletxean burutu beharreko bileran parte hartzeko eskaera egin zuten. Horretarako otsailaren 14an bilera bat egitekotan geratu ziren gurasoak.

Gurasoen bileran, bideragarritzat jotzen duten beste proposamen bat hautatu zuten; zerbitzu munizipalarekin jarraitzea, etorkizunean 0-16 baten alde lana egin

ahal izateko. Langilegoak egiten duen eskaerari erantzunez, lan baldintza duinak bermatzea.

Honela ba, udaletxean otsailaren 15ean, eguerdiko 13.00ean burutu zen bileran alderdi bakoitzak bere proposamena plazaratu zuen. Udalak egoerak duen inportantiaz jabeturik lehenbailehen erabaki bat hartzeko konpromisoa hartu zuen.

Langileak argi dute lan baldintza haue-tan jarraitzeko prest ez daudela. Momentuz, udaletxearen erantzunaren zain daude. Herriak eta gurasoak herri honi, zerbitzu munizipala eskaini nahi badiote eta Partzuergoko lan hitzarmen berbera bermatzen duen proposamena mahai gainean jartzen bada, bertako langilegoak proposamena hausnartzeko konpromisoa hartzen du.

Usurbilgo Haur Eskolako langileak

Usurbilgo gazteak Mihiluzen markak hausten

Astegunetan, afalordua telebista aurrean igarotzen duten askok ez dute ETB 1-eko "Mihiluze" saioa galtzen. Asko dira dagoeneko, saioa ikusteaz gain, parte hartzera joan direnak. Hala egin zuten hiru usurbildarrek; Miren

Zarautzek Ibarrako Alex Arozenarekin batera eta Erramun Errok eta Xabier Linazisorok. Bakoitzak bere unean, inork baino saio gehiagotan parte hartzeko aukera izan dute. Bi errekor hauste haienak dira.



XABIERREK ETA ERRAMUNEK ZORTZI SAIOTAN JARRI ZUTEN IRAUPEN MARKA.



MIRENEK ETA ALEXEK, ALDIZ, HAMAIKA SAIOTAN JARRI DUTE MIHILUZeko ERREKORRA.

Erogilfikoak, Potokumeak, Tribuaren berbak, Zer da zer? izeneko frogak ezagunak dira, ETB1-eko "Mihiluze" saioko jarraitzaile eta lehiakideentzat. Duela bi aste ikusi genuen orain artean lehiaketan parte hartu duen azken usurbildarra; Miren Zarautz. Ibarrako Alex Arozenarekin joan zen lehiatzera. Asteetan biltzen joandako diruzakua ere irabazi zuten saioetako batean. "Grabazio eguneko azken unean izan zen", gogoratzen du Mirenek. Musikariekin lotutako azken frogan. "Bi izenekin zalan-tzak genituen. Horiek hain justu, azken unera arte ez zituzten argitu aurkezleek. Tentsio handia bizi izan genuen", adierazi du. Baina emandako erantzun guztiak balekoak zirela jakin zutenean pozez gainezka

ziren.

Bestalde, iraupenean ere marka berria hautsi dute. Hamaika saiotan ikusi ahal izan ditugu, euskararen inguruko jolasean parte hartzen. Orain artean hainbeste saio iraun dituen bikoterik ez da. Antzeko egoera bizi izan zuten, duela hilabete batzuk, "Mihiluze"-n parte hartu zuten Erramun Erro eta Xabier Linazisoro usurbildarrek ere. Orduko hartan, zortzi saiotan jarri zuten marka.

Giro ederra, grabazio egunean

"Mihiluze" astelehenetik ostegunera ikusi badaiteke ere, zazpi egunetik behin aste osoko programak grabatzen dituzte. Asteartetan, goizeko 10:30etan hasi eta berandue- nez, 19:30ak arte. Zenbat eta saio

gehiago irabazi, orduan eta grabake- ta ordu gehiago izaten dira. Baina primerako giroa dute. Lehen unetik, eta pasatako orduen ondorioz, lan taldearen eta lehiakideen artean harreman estua sortzen da. "Jendea oso jatorra da. Edozer gauza behar izanez gero, segituan ekartzen dizute", adierazi du Mirenek.

MIREN ZARAUTZ

"Saioko jendea oso jatorra da. Edozer gauza behar izanez gero, segituan ekartzen dizute"

Eta jatekorik ere ez zuten falta; tankera ezin hobea zuten Miramongo estudioetako gosari,

bazkari eta askariek. “Bapo jaten genuen”, adierazi du Erramunek.

Lan-taldea ere lehiakide berriei ahalik eta harrerarik hoberena egiten saiatzen da. Urduritasuna uxatzeko ahalegina egiten dute aurkeztu eta kamera atzean lanean ari direnek. “Zailena lehen eguna izaten da, baina haiek asko laguntzen dute”, gogoratu du Errok.

Mihiluzekoak, kalean, ezagun

Grabazio saioak txukundu eta telebistaz eskaintzeko unea iristen da. Anonimotasuna galtzeko garaia. Hain zuzen, saioak jarraitzaile asko ditu. Eta hori kalean nabaritu dute “Mihiluze”-ko lehiakide izan direnek. Eguneroko erosketak egitera-koan edota asteburuko parrandan

ERRAMUN ERRO

“Donostiara joandakoan, hara Mihiluzekoak! bezalako esanak entzun ditugu. Garagardotegian ere bezero askok esan didate”

inguruetako beste herriren batera joandakoan. “Donostiara joandakoan, hara Mihiluzekoak! bezalako esanak entzun ditugu. Garagardotegian ere bezero askok esan didate”, adierazi du Errok.

Lehiatu baino lehen, casting-a pasa behar

“Mihiluze”ra joateko asmoa duten lehiakideek programako arduradu-

nekin harremanetan jarri ondoren, casting-a egin beharra dute. Eta hortik telebista platora, Miramonera (Donostia).

“Ezer prestatu gabe joan ginen telebista saiora”

Aldez aurretik entrenatzea komeni da. Azken orduko larritasun uneak saihesteko bada ere. “Casting-ean Imintzioka frogan entrenatzeko esan ziguten. Denbora faltagatik, prestatu gabe joan ginen”, adierazi du Mirenek.

Lehen saioan kaleratuak izango ote ziren kezkatuta, ikusi da noraino iritsi diren. Erramun eta Xabier bezala, markak hausteraino.

ARITZ GORRITI

Euskarazko Film Laburren Zirkuitua, martxoaren 15ean Usurbilen

A bian da Euskarazko Film Laburren Zirkuitua, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak laugarren urtez martxan jarri duen ekimena. Zirkuituak 6 film laburrez osatutako 37 emanaldi eskainiko ditu beste horrenbeste herritan. Eskainiko den laburretako bat, Ane Muñozen “Loturak” izenekoak, hain zuzen ere, zirkuituan bertan estreinatuko da. Usurbilen martxoaren 15ean ikus ahal izango ditugu film labur hauek, 20:00etan Sutegin, NOAUA!ren eskutik.



Inauterietako irudiak, noaua.com webguneko Argazkitegian ikusgai

Argazkitegia atalean sartu eta Inauterietako irudi asko aurkituko dituzu. Udarregi ikastolako ekitaldiak nahiz Inauteri Jaietako argazkiak konpilatu ditugu. Dena den, atal irekia denez, zuk ere elikatu dezakezu Argazkitegia. Bidali Inauterietako zure argazki txukunenak erredakzioa@noaua.com e-posta helbidera eta ahalik eta azkarren jarriko ditugu sarean. JPG formatoan bidali, RGB euskarrian eta tamaina ertainean.



Iaz baino gehiago

Sahararen aldeko kanpainan 1.000 kilo bildu ziren Usurbilen

Hirugarren urtez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bildutako 400 tona elikagai eta sendagai Saharako Tindoufeko iheslari gunerako bidean daude. Denera, 29 kamioi. Horietatik 12, elikagaiez beteta: arroza, atuna, azukrea, lentejak, konpresak... Aurten, besterik ere garraiatu da Sahara. Bi berotegi jartzeko proiektua dago Aaiunen (Tindouf), modu horretan elikagai freskoak ere izan ditzaten. Sendagaiak ere bildu ditu "Otsailak 27" saharar herriaren aldeko koordinadorak.

400 tona horietatik, mila kilo Usurbilen bildutakoak dira. Iaz baino askoz gehiago bildu da aurten. Luisma Lopez "Otsailak 27" saharar herriaren aldeko koordinadorako kide da eta eskerrak eman nahi dizkie herritar denei, "eta bereziki, Udarregi ikastolari eta Aliprox zein Dia supermerkatuei".

280.000 euro ere bildu dira

Diru premia ere handia da. 280.000 euro bildu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Institutuzio, elkarte eta sindikatuen ekarpenak izan dira nagusi. Baina herritar askok ere diruz lagundu du aurten.

Sahararen aldeko kanpainak, beraz, arrakasta handia izan du. Luisma Lopezek esan digunez, "Usurbilen



IAZ, ELIKAGAEIETZ BETETAKO ZAZPI TRAILER ABIATU ZIREN SAHARA ALDERA; AURTEN, HAMABI TRAILER.

bezala, beste herrietan ere gora egin du bildutako elikagai eta osasun-gaien kopuruak. Adibide bat jartzearen, iaz zazpi izan ziren elikagaiez beteta Sahara aldera abiatu ziren trailerrak. Aurten, hamabi izan dira. Dena den, premia ere handiagoa zen aurten".

Iaz, otsaila partean, uholdeak izan ziren eta ia etxe denak galdu egin ziren. Zerbitzu asko ere desegin zituzten uholdeek. Horregatik handiagoak ziren aurten sahararrek zituzten premiak.

IMANOL UBEDA

Euskal karabana, Aljeriatik Tindoufera

400 tona elikagai eta sendagai. 29 kamioi. Aurten bildu den guztia, labur esanda. Elkartasun karabana Donostiatik atera eta zuzenean Alacantera (Herrialde Katalanak) abiatu zen. Elikagaiak itsasontzi batean sartu eta Oraneraino (Aljeria) eramane zituzten. Handik, Fronte Polisarioaren ardurapean, desertura eramaten zituzten, Tindoufera, 2.000 kilometroko ibilbidean.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA TS
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak
TABERNA

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tf 36 21 64
USURBIL

il e a p a i n d e g i
ZUBIAURRENA 4, USURBIL
misto
943361951

Zumartekoak bikain aritu ziren Andoaingo Piano Jaialdian



Andoainen ospatu berri den Piano Jaialdian Zumarte Musika Eskolako hamar bat ikaslek parte hartu dute, Euskal Herritik joandako beste 700 ikaslerekin batera. Dominekin itzuli dira etxera. Miren Etxebeste irakaslearen esanetan, "guretzat ikasturte hasieran markatu genuen helburuetako bat

izan da". Bere ustez, esperientzia baliagarria izan da ikasleentzat. "Haiek bezala besteek pianoa jotzen ikusi eta musika eskolatik kanpo atera baitira", adierazi du. Beste musika instrumentuekin ez bezala, pianoaren inguruan ospatzen den jaialdi bakarretakoa da Andoainen antolatu dena.

Olio birziklatzeko ibilgailua iritsiko da asteazkenean

Olio erabilia eta beste hainbat hondakin biltzen dituen San Markos Mankomunitateko ibilgailua hilean behin hurbiltzen da Usurbila. Hilabeteko lehen asteazkenean, hain zuzen. Martxoaren 7an frontoi atzean izango da ibilgailua. Zerbitzu honen bitartez, etxeko hondakin arriskutsuak, olio erabiliak eta ehunak jasotzen dira.



Sagarrondotik jaialdirako sarrerak, Ardi Beltzen salgai

Hernanin ospatuko da Sagarrondotik jaialdia martxoaren 16ko asteburuan. Sarrerak eta bonoak salgai dira jadanik. Egun bakoitzerako sarrerak 21 euro balio du aurretik erosita (takilan, 24 eurotan erosi ahal izango dira). Bi egunetarako 1.000 bono kaleratuko dituz-

te eta hauek 36 eurotan eros daitezke. Salmenta puntua Usurbilen, Ardi Beltza garagardotegian. Gainontzeko salmenta puntuak, hauexek: Bilbo (Muga taberna), Elorrixo (Parra), Gernika (Lagun etxea), Lekeitio (Ioar), Iruñea (Planet rock), Altsasu (Lezea),

Lesaka (Atxaspi), Tafalla (Pasadizo), Donostia (Ttun ttun), Urnieta (Xauxar), Astigarraga (Kizki), Orereta (Arkaitza) Hernani (ohiko salmenta puntuak), Elkar megadendak (Baiona, Iruñea, Bilbo, Gasteiz, Donostia, Tolosa, Irun, Bergara, Arrasate).

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



Udazkenetik aurrera, Zubietan, konpostajea sustatzeko esperientzia pilotua

Konpostajerako sukaldean erabili ez den materia organikoa etxez etxe biltzeko esperientzia pilotua abian izango da udazkenetik aurrera Zubietan eta Añorgan. Hala eman zuen jakitera pasa den otsailaren 22an, Donostiako Udaleko Ingurumen zinegotzi Denis Itxasok prentsurrekoan. Amara auzora ere hedatuko den ekimenean, aipatutako gaiak ohiko zabor poltsetatik atera eta bereiztera dei egin zien herritarrei.

Horretarako, aipatutako hiru gunetan, hau da, Zubietan, Añorgan eta Amaran Donostiako Udalak informazio kanpaina bat abiaraziko du, haien esanetan "herritarren parte hartze eta kontzientzia maila altua eta eraginkorra lortzeko".

URTEAN, 12.000 TONA

"Hasiera batean, gipuzkoarren %20k parte hartzea aurreikusten du Foru Aldundiak"

Gipuzkoako beste hainbat herriek ere ekimen horretan parte hartuko lukete; Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz eta Zumaiak. Herri horietan bildutakoa Lapatzeko zabortegian eraikitzeak diren konpostaje



KONPOSTAJEA SUSTATZEKO KANPAINA UGARI JARRI NAHI DIRA ORAIN MARTXAN.

plantara garraiatuko litzateke. Baita, Foru Aldundiaren aurreproiektu baten arabera, Donostialdean edo Txingudi aldean eraikitzea aurreikusia dagoen beste konpostaje planta batean ere.

Alde horretatik, Txingudiko Mankomunitateko lurretan hasieran eraikitzeak ziren errauste-planta, orain, konpostaje planta eraikitze baliatzearen alde agertu zen Itxaso. Aurrera begira, konpostarako materia organiko guztiak erabiltzeko interesa agertu zuen, erraustegian tratatu beharreko hondakin kopurua ahal den txikiena izan dadin.

Hasiera batean, gipuzkoarren %20k, 90.000 biztanle inguruk parte

hartzea aurreikusten du Foru Aldundiko Garapen Jasangarriko diputatu Luis Mari Oiarbidek. Aurreproiektu fasean dagoen konpostaje plantan, Oiarbideren arabera, urteko 12.000 tona tratatuko lirateke. Helburua, bere esanetan, 2016rako Gipuzkoan 60.000 tona konpostatu eta ekimen horretan herritarren %60a inplikatzeko litzateke.

Donostiako Udaleko EB taldeak udal gobernu taldearen eta Foru Aldundiaren hipokresia salatu zuen, erraustegia Zubietan kokatzea erabaki ondoren baitator ekimen hori.

ARITZ GORRITI

San Markosek 700 konpostagailu jarri ditu eskuragai

Egunero sortzen diren hondakin kopurua gutxitu eta 2005etik abian duten kanpainari jarraipena eman nahian, San Markos Mankomunitateak 700 konpostagailu eskura jarri ditu beste hainbeste sendientzat. Interesdunek zenbait baldintza bete behar dituzte; etxean lorategia

edo baratza izatea eta etxean sortutako hondakinak ongarri naturalean (konpost) bihurtu nahi izatea. Konpostagailua etxera eramateko interesa dutenek, aldeztetik izena eman behar dute honako telefono zenbakian: 943 670 249. Ekimenean parte hartu nahi dutenek, ordu eta erdiko tailerra

izango dute. Bertan, konposta nola egin azalduko zaie. Ikasgaia jaso ostean, konpostagailua eta konpostatzeko eskuliburua etxera doan eramanez eta lehen hilabeteetan kontsultak egiteko aholkularitza zerbitzua erabili ahal izango dute. Eskatzaileek tailerren egutegia martxoan jasoko dute.

Erraustearen aurkako manifestazioa egingo da larunbat honetan Donostian

Alternatibak badaudelako, errausketarik ez, ez Zubietan ez inon. Erreferenduma orain.

Hala dio manifestazioa iragartzeko atera duten txartelak. Erraustearen Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak egin du deialdia. Manifestazioa Donostiako Anoetatik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan. CCOO, ELA, EHNE, ESK, LAB, STEE, Ezker Batua-Berdeak, Aralar, Batasuna, Zutik, Eguzki, Greenpeace eta Ekologistak Martxan taldeen babesa jaso du herri plataformen deialdiak.

Larunbateko manifestazioa iragartzeko, prentsaurrekoa eskaini zuen asteartean Errausketaren Aurkako Herri Plataformak. Juanjo Olaizola zubietarrak komunikabideen aurrean adierazi zue-
nez, “duela gutxi onarturiko direktiban, zaborra gutxitzeari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari lehentasuna eman dio berriro ere Europak. Errausketa balorizazioa ez dela azpimarratu du, sortzen duen energia baino gehiago kontsumitzen duela. Baita ere industri kutsakorrenetakoa dela, gizakiarentzat zein elikatzeko-katearentzat sustantzia toxiko eta kutsakor izugarri arriskutsuak sortzen dituela”. Juanjo Olaizolak gaineratu zue-
nez, European ezarri den irizpidearen arabera, “zaborraren zati organikoa bereiz-tuta bildu behar da, eta tratatu egin behar da zabortegira botatzeko bada ere”.

Juanjo Olaizolaren esanetan, “hori guztia Plan Alternatiboan jaso dago eta behin eta berriro errepikatzen dugu ematen ditugun hitzaldietan, baina ez da nahikoa, ez Luis Mari Oiarbide Garapen Iraunkorreko diputatuaren-



ERRAUSTEAREN AURKAKO TALDEEK ASTEARTEAN AURKEZTU ZUTEN MARTXOAREN 3KO MANIFESTAZIOA.

tzat, ezta Odon Elorza, Ezeizabarrena eta konbenioaren alde bozkatu duten alderdietako kideentzat ere. Baina herri-tarrok berriro ere demostratuko dugu politikarien aurretik goazela, haien handikeriak salatu eta bidezko alternatibak martxan jartzen saiatuz. Horregatik berriro ere kalera irten beharra dauka-gu, oraingoan Donostian; martxoaren 3an, larunbatez, arratsaldeko 17:00etan Anoetako futbol zelaiaren ondoan”.

Sindikatu, alderdi eta talde ekologisten babesa

Sindikatu, alderdi eta talde ekologista hauen babesa jaso du manifestazioak: CCOO, ELA, EHNE, ESK, LAB, STEE, Ezker Batua-Berdeak, Aralar, Batasuna, Zutik, Eguzki, Greenpeace, Ekologistak Martxan.

Zubietako Herri Batzarrak helegite bat aurkeztu du

Foru Aldundia eta Urola Erdiko mankomunitatearen arteko akordioaren ondorioz, Azkoitiko, Azpeitiko, Zarauzko eta Zumaiako herriarrek beren hondakin organikoen zati bat konpost bihurtu ahal izango dute Lapatxen (Urolan) eraikiko den tratamendu plantan. Honen aurrean, Zubietako Herri Batzarrak helegite bat aurkeztu du. Juanjo Olaizolak argitu utzi nahi du, “gu konpostajea egitearen alde gaudela baina ez Foru Aldundiak proposatzen duen moduan”. Olaizolaren ustez, Foru Aldundiak egin duen proposamenarekin konposta erdizka egingo litzateke.

**JOSUE
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

Otar-Goxo
Elkargak

Zubiaurrenea, nº2
T 943 36 55 81
20170 Usurbil

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

